“Nos pasa exactamente lo mismo con la tasa de turismo. Nosotros también, no somos del equipo de gobierno, pero también asumimos que tenemos un debate, un debate por medio, y compartimos también el diagnóstico de los grupos culturales, que también, bueno, pues estamos dispuestos a trabajar en esa ordenanza de Bastero que, bueno, pues que sabemos que hay que modificarla. Por lo tanto, a su propuesta, o sea, la primera, como ya he adelantado, no vamos a apoyar, y la segunda sí, porque es similar a a la nuestra, que es el 99%. Y ya estaría.

“Y con respecto a Podemos, pues, eso, Sr. Iparraguirre, se lo he dicho en más de una ocasión, tiene una cruzada, que es la vivienda, y creo que no ha elegido un buen compañero, porque, que tenga que negociar las medidas de vivienda con la oposición y no con tu socio de gobierno, pues es cuando menos, cuando menos llamativo. De todas formas, nosotros seguiremos estando a disposición y trabajando por ello.”

Jarraian, Iparraguirre jaunak, Elkarrekin Podemos udal taldeko eledunak, hartu du hitza, honakoa esateko:

“Bueno, respecto a las medidas de vivienda, antes ha dicho que no se aprobaron las que presentaron el año pasado, creo recordar que algunas al menos por mi parte, sí que se votaron a favor, volveré a votar a favor de las que han presentado este año y que nos parecen interesantes, como la siete y la ocho. También votaremos a favor de la primera propuesta. Eso es. Luego decir que votaremos en contra, por ejemplo, de la propuesta número tres, no nos parece aceptable, porque los propietarios ya se benefician del hecho de que sea una vivienda de protección pública, por lo que creemos que aplicarles una extensión en el IVA no nos parece razonable. Votaremos en contra también de la propuesta número cinco, porque beneficia a las rentas con más ingresos. También votaremos en contra de la número seis, como ha dicho el Sr. alcalde, porque ya el vehículo eléctrico cuenta con sus propias bonificaciones, y excluye esta propuesta, excluye a quienes no cuenten con una plaza de garaje.

“Nos abstendremos en alguna otra, como la número nueve y la número, creo que es la 15, en ambos casos, porque los límites que proponéis nos parecen excesivos en las bonificaciones a las familias numerosas y creemos que no se pueden bonificar unas rentas tan altas como 90.000 euros. Hay algunas otras propuestas en las que les interrogábamos sobre su propuesta, como la número 13, que al referirse a las construcciones u obras, no tenemos claro si incluye las reparaciones o mejoras de los edificios y viviendas ya construidos y por tanto, nos vamos a abstener. Lo mismo que en la 14, que tampoco determina las condiciones en las que se les puede aplicar hasta el 90%. No sabemos, si se empieza del 10, si se acaba en el 90, en función de qué es esa progresión. Bueno, la 15 ya la he mencionado y en la propuesta 16 también nos vamos a abstener, porque creemos necesario ese incremento del consumo de agua para las familias numerosas, pero nos parece que llevarlo hasta 90 metros cúbicos es un poco exagerado.

“No tenemos que olvidar que el hecho de que una familia sea numerosa es en la mayoría de los casos, una decisión adoptada por sus padre, por los cabezas de familia. Deben de tener en cuenta todo este tipo de cosas también a la hora de ser familia numerosa.

“Respecto a la propuesta 17, pensábamos votarla en contra, pero después de este cambio de posición del equipo de gobierno nos vamos a abstener.

Jarraian, Goenaga jaunak, EAJ/PNV udal taldeko eledunak hartudu hitza, honakoa esateko:

“Bueno, eskertu”

Jarraian, Iparraguirre jaunak, Elkarrekin Podemos udal taldeko eledunak, hartu du hitza, honakoa esateko:

“Barkatu no os he mencionado. Les he ignorado, y le pido disculpas. Tasa turistikoa eta ekipamentu publikoari dagokionez erabat ados gaude horrekin eta ordenantzak landu beharko direla uste dugu. Horretan, erabat ados, eta beste taldeek bezala ez dugu uste zaborraren bonifikazioak kentzea, orain behintzat, onurarik izango litzatekeenik, baizik eta aurkako, kontrako efektoa, izan daitekeela.

“Bigarrena berriz, ondo iruitze zaigu.”

Jarraian, Goenaga jaunak, EAJ/PNV udal taldeko eledunak, hartu du hitza, honakoa esateko:



Andoingo Udala

Akta:Osoko Udalbatza

APARTEKO BILKURA: 2025/10/23

Acta: Pleno Municipal

SESIÓN EXTRAORDINARIA: 23/10/2025

“Eskerrak eman guztioi. Bueno, adierazi proposamenekiko adierazi duzuten jarreragatikan ze, bueno, gelditzen naiz gobernu taldeak bai konpromezua hartzen duela hondakinen inguruan_ pago por uso_ hori ezartzeko, ezta? Guri gustatuko litzaigukena, ze guri gustatuko litzaiguke jada lehenbailehen, hori, bonifikazioa kentzea, eta mantenduko dugu emendakina politikoki nahiz eta badakigun galduko dugula, gustatuko litzaigukeelako hori mahai gainean jartzea.

“Bai, baina bueno, konpromiso hori aktan jasota gelditzen da alkate jauna. Beraz, gogoratuko diogu urtebete barru eta udal eraikinen inguruan eta tasa turistikoaren inguruan pozten gaitu aho batez, gu guztiok, denak batera, kontsensu horretan baldin bagaude. Horrek bai eskatuko ligukeena da lehenbai lehen lanean hastea, ez gaitzala harrapatu berriro ere hurrengo urteko irailean, korrika eta presaka hauen inguruan borrokan aritu beharrak.

“Ez dakigu, Alderdi Sozialistari erantzunez, si es el momento ahora o no de plantear lo de las bonificaciones de residuos, a ver, lo hemos planteado, no sólo yo, mi predecesora, yo creo que era una talibana, insistía, insistía, insistía en esto. Y bueno, el tiempo un poco nos da la razón en que el servicio sigue siendo cada vez más potolo. El gasto de la basura, cada vez, pues a las arcas del ayuntamiento le supone más. Y bueno, sí que vamos a hacer un esfuerzo colectivo, que recordemos que vamos a incrementar un 25%. A los/as andoaindarras hay que contarles de que no es una bonificación sin más, sino que van a tener un incremento de 25% al respecto.

“Eta besterik ez, ez enaizela gehiegi luzatuko. Bai, gogoeta bat Alderdi Sozialistari gure postura adierazteko. Gu ez gaude ibilgailu elektrikoaren kontra, baina bai zalantza, aitortu behar dugu talde barruan zalantzak izan ditugula halako neurriek zenbateraino andoaindarrengan eragin aproposa edo proportzionala edo justu ote duten. Espikatzen naiz. Kotxe elektriko bat erosteko gaitasuna daukan pertsonak ahalmen medio altu bat dauka eta bereziki ari da bonifikatzen ba kotxe elektriko hori erosteko gaitasuna duen pertsona horri. Aldiz, kotxe zahar bat edo kutsagarriago bat duen pertsona horrek, ekonomikoki zailtasun gehiago izan ditzakeen horrek, penalizatzen dugu, bere kotxeak kutsatzen duelako. Helburua izan behar du, argi daukagu ibilgailuak geroz eta jasangarriagoak izatea, baina bai aitortu behar dugu zalantza izan degula gure talde barruan, zenbateraino ez ote geran bonifikatzen ari gaitasun ekonomiko gehien daukaten horiek eta aldiz, hobariak ez ote duten izan behar beste zentzu batean.

“Horregatik ez ditugu onartuko, baina bai ñabardura hori adierazi nahi nuen, ez gaudela ibilgailu elektrikoaren kontra, baina bai bonifikazio horiek planteatzearen kontra, gutxienez zalantzarekin. Eskerrik asko.”

Berriro ere, Alkain jaunak, PSE-EE udal taldeko eledunak, hartu du hitza, honakoa esateko:

“Barkatu, sí que me gustaría, porque han salido varios, un par de temas, y voy a ser breve. Con respecto a lo que ha comentado el señor alcalde, que son importantes los ingresos y las bonificaciones, no se bonifican todas, y eso lo tenemos que tener claro cada ciudadano si le pertenece una o dos o tres, se le bonifica con la más ventajosa para ellos.

“Y como reflexión, sí que deberíamos y queremos poner sobre la mesa que en estos momentos de crisis de vivienda el ayuntamiento tiene la obligación y el deber moral de apretarse el cinturón y de poner todos los recursos que la norma foral nos permite en servicio, todos, sin excepción, ni uno solo, independientemente de si el vehículo lo compra una familia que tiene dinero, o si pide un préstamo para ello. Creemos y consideramos que como ayuntamiento, tenemos que poner todos los recursos que la norma foral nos permite, y hemos visto lo que es no hacer caso de los recursos y perder oportunidades. Por lo tanto, sí que quería hacer esa reflexión y de nuevo, pues bueno, volver a agradecer que apoyeis parte de nuestras medidas, y por lo tanto, bueno, entendemos y ponemos en valor el esfuerzo. Se nos queda corto, seguiremos intentándolo el año que viene, pero bueno, votaremos en consecuencia con ello. Gracias.”

Jarraian, Alkate jaunak, hartu du hitza, honakoa esateko:

“Orduan hasiko gara bozketekin, esan bezela, Alderdi Sozialistaren lehenengo, EAJrenak bigarren, hirugarren batera aurkeztu dituzuenak eta gero udal gobernuaren proposamena.”

Idazkari jaunak hartu du hitza, honakoa esateko:

“Bakarrik esan nahiko nuke, barkatu, gauza bat. PSE-EEk aurkeztutako zortzigarren proposamenaren



Andoaino Udala

Akta:Osoko Udalbatza

APARTEKO BILKURA: 2025/10/23

Acta: Pleno Municipal

SESIÓN EXTRAORDINARIA: 23/10/2025

inguruan. Etxebizitza hutsen kanonen inguruan, teknikariak bere txostenean esan bezela, ez da ordenantza fiskalen espedientearen parte eta zentzu horretan ezingo litzateke onartu espediente horren barruan, gainera hori aplikatu ahal izateko dagokion araudia izan beharko luke berekin, eta horrela onartuko balitz, onartuko genuke gauza bat legez ezarritako prozedura jarraitu gabe.”

Jarraian, Alkate jaunak dio:

“Hasiko gara ordun bozketekin.”

Iparraguirre jaunak, Elkarrekin Podemos udal taldeko eledunak, galdetzen du:

“Orduan hori bozkatu egingo dugu ala ez?”

Idazkari jaunak erantzuten du:

“Zuzenketa bezela dago sartuta momentu honetan, baino indarreko araudiaren arabera ezin da horrela onartu.”

Iparraguirre jaunak dio:

“Orduan ez dugu bozkatuko.”

Idazkari jaunak dio:

“Bozkatu, zuzenketa gisa momentu honetan dagoen momentuan bozkatu egin beharko da, baina bueno nik esan nahi dut, esan nahi dudana da, ezingo litzatekeela hola onartu, ze ez du jarraitzen, ez du betetzen indarreko araudia, ez delako ordenantza fiskalen espedientearen zati.

Alkate jaunak, hartu du hitza eta honakoa erantzun du:

“Guk puntu horretan erantzunkizunez eta argi uzteko, filosofiarekin bat etorri gaitezen arren, ezin dugu bozkatu alde aplikatu ezin den gauza bat eta ordun guk kontra bozkatuko dugu, edukiagatik baino gehiago, ezin delako aplikatu. Hasiko gara orduan bozketarekin.”

Alkate jaunak, PSE-EE udal taldeak aurkeztutako lehen zuzenketa bozketara jarri du eta Osoko Udalbatzaren Bilkurak, gehiengoz, Alkate jaunaren eta EH Bildu, PSE-EE eta Elkarrekin Podemos udal taldeetako zinegotzien aldeko botoekin eta EAJ/PNV udal taldeko zinegotzien kontrako botoekin, onartu du.

Jarraian, PSE-EE udal taldeak aurkeztutako bigarren zuzenketa bozketara jarri du eta Osoko Udalbatzaren Bilkurak, gehiengoz, Alkate jaunaren eta EH Bildu eta EAJ/PNV udal taldeetako zinegotzien kontrako botoekin, PSE-EE udal taldeko zinegotzien aldeko botoekin eta Elkarrekin Podemos udal taldeko zinegotziaren abstentzioarekin, ez du onartu.

Jarraian, PSE-EE udal taldeak aurkeztutako hirugarren zuzenketa bozketara jarri du eta Osoko Udalbatzaren Bilkurak, gehiengoz, Alkate jaunaren eta EH Bildu, EAJ/PNV eta Elkarrekin Podemos udal taldeetako zinegotzien kontrako botoekin eta PSE-EE udal taldeko zinegotzien aldeko botoekin, ez du onartu.

Jarraian, PSE-EE udal taldeak aurkeztutako laugarren zuzenketa bozketara jarri du eta Osoko Udalbatzaren Bilkurak, gehiengoz, Alkate jaunaren eta EH Bildu, EAJ/PNV eta Elkarrekin Podemos udal taldeetako zinegotzien kontrako botoekin eta PSE-EE udal taldeko zinegotzien aldeko botoekin, ez du onartu.

Jarraian, PSE-EE udal taldeak aurkeztutako bosgarren zuzenketa bozketara jarri du eta Osoko Udalbatzaren Bilkurak, gehiengoz, Alkate jaunaren eta EH Bildu eta PSE-EE udal taldeko zinegotzien aldeko botoekin, eta EAJ/PNV eta Elkarrekin Podemos udal taldeetako zinegotzien kontrako botoekin, onartu du.

Jarraian, PSE-EE udal taldeak aurkeztutako seigarren zuzenketa bozketara jarri du eta Osoko Udalbatzaren Bilkurak, gehiengoz, Alkate jaunaren eta EH Bildu, EAJ/PNV eta Elkarrekin Podemos udal taldeetako zinegotzien kontrako botoekin eta PSE-EE udal taldeko zinegotzien aldeko botoekin, ez du onartu.

Jarraian, PSE-EE udal taldeak aurkeztutako zazpigarren zuzenketa bozketara jarri du eta Osoko Udalbatzaren Bilkurak, gehiengoz, Alkate jaunaren eta EH Bildu, PSE-EE eta Elkarrekin Podemos udal taldeko zinegotzien aldeko botoekin eta EAJ/PNV udal taldeko zinegotzien abstentzioarekin, onartu du.

Jarraian, PSE-EE udal taldeak aurkeztutako zortzigarren zuzenketa bozketara jarri du eta Osoko Udalbatzaren Bilkurak, gehiengoz, Alkate jaunaren eta EH Bildu eta EAJ/PNV udal taldeetako



Andoaino Udala

Akta:Osoko Udalbatza

APARTEKO BILKURA: 2025/10/23

Acta: Pleno Municipal

SESIÓN EXTRAORDINARIA: 23/10/2025

zinegotzien kontrako botoekin eta PSE-EE eta Elkarrekin Podemos udal taldeko zinegotzien aldeko botoekin, ez du onartu.

Jarraian, PSE-EE udal taldeak aurkeztutako bederatzigarren zuzenketa bozketara jarri du eta Osoko Udalbatzaren Bilkurak, gehiengoz, Alkate jaunaren eta EH Bildu, PSE-EE eta EAJ/PNV udal taldeko zinegotzien aldeko botoekin eta eta Elkarrekin Podemos udal taldeko zinegotziaren abstentzioarekin, onartu du.

Jarraian, PSE-EE udal taldeak aurkeztutako hamaikagarren zuzenketa bozketara jarri du eta Osoko Udalbatzaren Bilkurak, gehiengoz, Alkate jaunaren eta EH Bildu eta EAJ/PNV udal taldeetako zinegotzien kontrako botoekin, PSE-EE udal taldeko zinegotzien aldeko botoekin eta Elkarrekin Podemos udal taldeko zinegotziaren abstentzioarekin, ez du onartu.

Jarraian, PSE-EE udal taldeak aurkeztutako hamahirugarren zuzenketa bozketara jarri du eta Osoko Udalbatzaren Bilkurak, gehiengoz, Alkate jaunaren eta EH Bildu eta EAJ/PNV udal taldeetako zinegotzien kontrako botoekin, PSE-EE udal taldeko zinegotzien aldeko botoekin eta Elkarrekin Podemos udal taldeko zinegotziaren abstentzioarekin, ez du onartu.

Jarraian, PSE-EE udal taldeak aurkeztutako hamalauugarren zuzenketa bozketara jarri du eta Osoko Udalbatzaren Bilkurak, gehiengoz, Alkate jaunaren eta EH Bildu eta EAJ/PNV udal taldeetako zinegotzien kontrako botoekin eta PSE-EE udal taldeko zinegotzien aldeko botoekin eta Elkarrekin Podemos udal taldeko zinegotziaren abstentzioarekin, ez du onartu.

Jarraian, PSE-EE udal taldeak aurkeztutako hamabosgarren zuzenketa bozketara jarri du eta Osoko Udalbatzaren Bilkurak, gehiengoz, Alkate jaunaren eta EH Bildu eta PSE-EE udal taldeko zinegotzien aldeko botoekin, EAJ/PNV udal taldeetako zinegotzien kontrako botoekin, eta Elkarrekin Podemos udal taldeko zinegotziaren abstentzioarekin, onartu du.

Jarraian, PSE-EE udal taldeak aurkeztutako hamaseigarren zuzenketa bozketara jarri du eta Osoko Udalbatzaren Bilkurak, gehiengoz, Alkate jaunaren eta EH Bildu eta PSE-EE udal taldeko zinegotzien aldeko botoekin eta EAJ/PNV eta Elkarrekin Podemos udal taldeetako zinegotzien abstentzioarekin, onartu du.

Jarraian, PSE-EE udal taldeak aurkeztutako hamazazpigarren zuzenketa bozketara jarri du eta Osoko Udalbatzaren Bilkurak, gehiengoz, Alkate jaunaren eta EH Bildu eta PSE-EE udal taldeko zinegotzien aldeko botoekin eta EAJ/PNV udal taldeko zinegotzien kontrako botoekin eta Elkarrekin Podemos udal taldeko zinegotziaren abstentzioarekin, onartu du.

Jarraian, Alkate jaunak, dio:

“EAJ/PNV udal taldeak aurkeztutako bi proposamenak bozketara jarri ditut jarraian.”

Bozketara jarri da EAJ/PNV udal taldeak aurkeztutako lehen proposamena eta Osoko Udalbatzaren Bilkurak, gehiengoz, Alkate jaunaren eta EH Bildu, PSE-EE eta Elkarrekin Podemos udal taldeetako zinegotzien kontrako botoekin eta EAJ/PNV udal taldeko zinegotzien aldeko botoekin, ez du onartu.

Jarraian, EAJ/PNV udal taldeak aurkeztutako bigarren proposamena bozketara jarri da eta Osoko Udalbatzaren Bilkurak, gehiengoz, Alkate jaunaren eta EH Bildu, EAJ/PNV eta Elkarrekin Podemos udal taldeetako zinegotzien aldeko botoekin eta PSE-EE udal taldeko zinegotzien kontrako botoekin, onartu du.

Alkate jaunak, hartu du hitza eta honakoa esan du:

“Eta azkenik, PSE-EE eta EAJ/PNV udal taldeek batera aurkeztu dituztenak bozkatuko ditugu.”

Bozketara jarri da lehen proposamena eta Osoko Udalbatzaren Bilkurak, aho batez, Alkate jaunaren eta EH Bildu, PSE-EE, EAJ/PNV eta Elkarrekin Podemos udal taldeetako zinegotzien aldeko botoekin, onartu du.

Jarraian, bigarren proposamena bozketara jarri da eta Osoko Udalbatzaren Bilkurak, gehiengoz, Alkate jaunaren eta EH Bildu, PSE-EE eta EAJ/PNV udal taldeetako zinegotzien aldeko botoekin eta Elkarrekin Podemos udal taldeko zinegotziaren abstentzioarekin, onartu du.

Jarraian, hirugarren proposamena bozketara jarri da eta Osoko Udalbatzaren Bilkurak, gehiengoz, Alkate jaunaren eta EH Bildu, PSE-EE eta EAJ/PNV udal taldeetako zinegotzien aldeko botoekin eta eta Elkarrekin Podemos udal taldeko zinegotziaren abstentzioarekin, onartu du.

Jarraian, Alkate jaunak, jatorrizko proposamena eta onartutako zuzenketak txertatuta bozketara jarri du eta Osoko Udalbatzaren Bilkurak, aho batez, Alkate jaunaren eta EH Bildu, PSE-EE, EAJ/PNV eta Elkarrekin Podemos udal taldeetako zinegotzien aldeko botoekin, onartu du.

Beraz, Osoko Udalbatzaren Bilkurak, honakoa erabaki du:

1. Zerga Ordenantzen aldaketa, hasierako izaeraz onartzea, 2026ko urtarrilaren 01a datako ondorioekin, bere xedapenetan espresuki jasota dauden ondorioak eragotzi gabe.
2. Administrazio-espedientea jendaurrean jartzea, dagokion iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuz eta Andoaingo Udaletxeko iragarki-taulan eta egunkarietan erakutsiz, **30 eguneko** epeaz, interesdunek espedientea aztertu eta egoki iritzitako alegazio eta iradokizunak aurkeztu ahal izateko.
3. Espedientea jendaurrean dagoen bitartean alegaziorik edo iradokizunik aurkeztuko ez balitz, aipatu araudia behin-betiko izaeraz onetsita geratuko da.

Beraz, honako hau da Udalbatzarrak hartutako akordioa:

2.- Ondasun Higiezonei buruzko zergaren kuotak finkatzeko futsezko elementuak erregulatuko dituen Ordenantza Fiskala.

Aldatu egin dira 9. artikulua, azken xedapena eta II. eranskina, eta etxebizitza-errekargua ezartzen da; aurrerantzean, VI. kapitulua izango da, eta azken xedapena, berriz, VII. KAPITULUA.

8.artikulua

Hobari batzuk ezarri dira familia ugariaren titular diren subjektu pasiboentzat, diru-sarreraren eta seme-alaba kopuruaren arabera.

Seme-alaba kopurua	0,00€-26.000€	26.000,01€-55.000,00€	55.000,01€-90.000,00€	> 90.000, €
3	%90	%60	%40	0
4	%90	%70	%50	0
5 edo gehiago	%90	%90	%60	0

Familia ugariako seme-alabaren batek aitortutako ezintasunen bat edo lanerako ezintasunen bat badu, familia-unitateko seme-alabaren kopurua aldatu egingo da, pertsona hori bi seme-alaba gisa zenbatuko baita ondorio horietarako.

210.000,00 eurotik gorako katastro-balioa duten etxebizitzaren kasuan, hobari-ehunekoak dagokion zatian murriztuko dira, hobariaren zenbatekoak ez dezan gainditu lehen adierazitako hobari-motak 210.000 euroko katastro-balioari aplikatuz aterako litzatekeena.

Diru-sarreraren maila zehazteko, zerga-oinarri orokorraren, aurrezkiaren likidazio-oinarriaren eta lanaren hobariaren batura hartuko da kontuan, familia-unitatea osatzen duten guztien onura fiskalaren aurreko urteko Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren (PFEZ) aitortzearen oinarrituta.

Ondasun higiezin bat ohiko etxebizitzat hartzeko, ezinbestekoa izango da zerga-hobaria jasotzeko eskubidea duten familiako kide guztiak bertan erroldatuta egotea. Baldintza hori betetzen ez den banantze edo dibortzio kasuetan, kasuak banan-banan aztertuko dira.

Hobaria eskuratzeko baldintzak:

- Zergaren subjektu pasiboa familia ugariaren titularra izan behar da.
- Hobaria ondasun higiezin bakar batek jasoko du. Higiezin hori familia ugariaren ohiko bizilekua izango da, eta familiako kideak bertan erroldatuta egotea.
- Jabekidetzaren kasuan, ezkontideek, izatezko bikotekideek edo seme-alabek, guztien artean, etxebizitzaren jabetzaren edo gozamenaren ehuneko ehuna izan behar dute.



Andoingo Udala

Akta:Osoko Udalbatza

APARTEKO BILKURA: 2025/10/23

Acta: Pleno Municipal

SESIÓN EXTRAORDINARIA: 23/10/2025

- Familia ugariako ezein kidek ezin izango du bizitegi-izaerako beste higiezin baten titulartasuna izan udalerrian, gutxienez 50.

39/2015 Legearen 28. artikuluan eta 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 6.1. artikuluan ezarritakoari jarraiki, Andoingo Udalak, interesdunak horren aurka egiten ez badu, Eusko Jaurlaritzaren erregistroan eta NISAE elkarreragingarritasun-nodoaren bidez, hobaria eskuratzeko baldintzak betetzen dituzten egiaztatze behar den informazioa kontsultatuko du zuzenean eta, bereziki, bereziki Familia ugari titulua eta ondasun higiezinak Gipuzkoan eta probintziatik kanpo

2016ko apirilaren 27ko Datuak Babesteko 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 21 artikuluekin bat etorritik, eskatzaileak bere datuak kotsultatzearen aurka egin ahal izango du, aurka egiteko arrazoiak adieraziz; eta kasu horretan, udalak dagokion agiria aurkeztera behartu ahal izango du.

Udalak, edozein unetan, eskatzaileak hobariaren oinarri den baldintza galdu duela egiaztatzen balu, pertsona horrek hobari hori automatikoki galduko luke.

Hobaria familia ugariaren titularen balio-datara arte mantenduko da (betiere ekitaldi bakoitzean ezarritako mugak gainditzen ez badira).

Hobari hori ematearen ondorioak eskaeraren dataren hurrengo ekitalditik aurrekoak izango dira, eta ez dute izango atzera eraginik.

Beraz, eskariak hobaria aplikatu aurreko urteko abenduaren 30 baino lehenago egin beharko dira.

Hobaria eskatzen den zergaldirako urtarilaren 1ean familia ugariaren izaera duten subjektu pasiboek aplikatuko zaie hobaria.

Titularrek familia ugariaren izaera galtzea eragiten duen gertakariaren berri eman beharko dute. Azkentzeko arrazoiak gertatu eta hurrengo hilabetea amaitu baino lehen egin beharko da jakinarazpen hori.

Izaera hori galduz gero, aitortutako hobaria azkendu egingo da, hura gertatu eta hurrengo zergalditik aurrera.

9. artikulua.

-Eusko Jaurlaritzaren programetarako lagatzen bada abenduaren 23ko 466/2013 Dekretuaren bidez araututako «Bizigune» Etxebizitza Hutsen Programa»ren esparruan, «ASAP (Alokairu Segurua, Arrazoizko Prezioa), merkatu libreko etxebizitzaren alokairurako bitartekaritza programa»ren esparruan (irailaren 17ko 144/2019 Dekretuaren bidez arautua), edo autonomia erkidegoko, foru zein udaletako antzeko beste plan eta programa batzuen barruan erabiltzen diren ondasun eta higiezinaren gaineko zergaren kuota osoaren %99ko hobaria emango da lagapenak irauten duen bitartean.

Hobari hori ematearen ondorioak eskaeraren dataren hurrengo ekitalditik aurrekoak izango dira, eta ez dute izango atzera eraginik.

Beraz, eskariak hobaria aplikatu aurreko urteko abenduaren 30 baino lehenago egin beharko dira.

Hobari hori erreguzkoa da, eta ondasunaren titularraren eta etxebizitza kudeatzen duen erakundearen arteko kontratua aurkeztu behar da.

Hobariak gozatzeko, Udalak onartu beharko du alde aurretik.

Hobari hori bateraezina izango da Ondasun Higiezinaren gaineko Zergari aplikatu dakiokeen beste edozein hobariarekin

-Zergaren kuota osoaren % 50eko hobaria, eguzkitik edo beste energia berriztagarri batzuetatik datorren energiaren aprobetxamendu termiko edo elektrikorako sistemak instalatu diren ondasun higiezinarentarako. Hobari hori aplikatzeko, beroa sortzeko instalazioek kolektoreak edo berotzeko eta ur bero sanitarioko sistemak izan beharko dituzte, administrazio eskudunak homologatuta.

Hobari hori bost urtez aplikatuko da, sistema instalatzen denetik zenbatzen hasita. Hobari-eskabideak borondatez ordaintzeko aldiak aurkeztuko dira, edo hilabeteko epean, borondatezko epea amaitu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita. Hobari hori aplikatzeko, instalatzailearen ziurtagiria aurkeztu beharko da.

Hobari hori subjektu pasiboek eskatuta emango da, sistema instalatzen denetik 5 urtez aplikatuko da eta 2005. urtea baino lehen eraikitako etxebizitza-eraikinei buruzkoa izango da.

-Zergaren kuota osoaren % 50eko hobaria A edo B motako eraginkortasun energetikoaren etiketa duten



ondasun higiezinentzat.

VI Kapituluua. ERREKARGUAK

10.artikulua. Errekarguari lotuta dauden bizitegi erabilerako ondasun higiezinak.

1.- Subjektu pasiboaren edo hirugarrenen ohiko bizilekua ez diren bizitegi erabilerako ondasun higiezinak, errentan daukatelako edo haren erabilera laga dutelako, zergaren kuota likidoaren 100eko 150eko errekaruari lotuta geratzen dira.

Errekargu hori, zerga honen subjektu pasiboari eskatuko zaielarik, aplikatzen den zergaren une berean sortuko da, eta kuotarekin batera likidatuko da urtero.

Errekargu hau aplikatzearen ondorioetarako, bizitegi erabilerako higiezinak direla ulertuko da Katastroan etxebizitza erabilera edo xede gisa jasota dauden lokalak. Etxebizitzaren eranskinak ere sartuko dira, baldin eta erregistro-finka bakar bat osatzen badute.

Ondorio berberetarako, bizitegi erabilerako higiezin bat ohiko bizilekua dela ulertuko da baldin eta, zerga sortzen den datan, biztanleen erroldan jasota badago okupatzailearen ohiko bizilekua dela.

2.-Errekarguaren subjektu pasiboak tributu honen subjektu pasiboak izango dira.

11.artikulua Loturarik ez

Ez zaie errekaru hau aplikatuko Udalaren jabetzako etxebizitzari.

Era berean, errekarua ez zaie inola ere aplikatuko izaera sozialeko etxebizitza publikoen plangintzetara bideratutako bizitegi erabilerako ondasun higiezinak.

12.artikulua.Salbuespenak

1.- Egiatzko ohiko bizileku ez diren bizitegi erabilerako ondasun higiezinak salbuetsita egongo dira errekaru hau aplikatuzetik, 10. Artikuluan ezarritako terminoetan, inguruabar hauetakoren bat betetzen bada:

a) Sustapen berriko etxebizitzak, enpresa sustatzaileek bi urteko epean jabetza-salmentara bideratzen dituztenak, lehen okupazioko lizentzia lortzen denetik aurrera zenbatuta.

b) Erakunde publiko baten eskura jarritako etxebizitzak, haren helburuen artean haiek alokairuan jartzea denean.

Horabehera hori egiaztatuko da programa kudeatzen duen erakundeak egindako dokumentazioa aurkeztuta, etxebizitza programari laga zaiola frogatzeko.

c) Herentzia batekoak diren etxebizitzak, 2 urteko epealdian, titularra hil zenetik zenbatuta.

Horabehera hori egiaztatuko da dagokion heriotza-ziurtagiria aurkeztuta.

d) Gutxieneko bizigarritasun-baldintzak betetzen ez dituzten etxebizitzak.

Gutxieneko bizigarritasun-baldintzak izango dira ondare urbanizatu eta eraikia birgaitzeko jarduera babestuei buruzko 317/2020 Dekretuaren IV. eranskinean aipatzen direnak.

Horretarako, etxebizitzaren jabeak txosten tekniko bat aurkeztu beharko du, teknikari aditu batek sinatua, zeinek frogatuko duen etxebizitzak ez dituela bizigarritasun-baldintzak betetzen.

e) Antolamendutik kanpo, aurri egoeran deklarata edo kudeaketa urbanistikora lotuta dauden etxebizitzak.

Horabehera hori Udalak ofizioz egiaztatuko du.

f) Hirugarren Adinekoen egoitzetan erroldatuta dauden pertsonen titularitatekoak diren etxebizitzak.

Salbuespen hau aplikatuko zaio, soilik, Egoitzan sartu aurretik egoiliarrentzat ohiko etxebizitza izatearen baldintza betetzen zuen etxebizitzari.

Horabehera hori egiaztatuko da errolda ziurtagiria aurkeztuta, udalerritik kanpo erroldatuta dauden kasu haietan.

g) Mendekotasuna duten pertsonak titular dituzten etxebizitzak (I, II eta III. graduak), "Autonomia pertsonala sustatzeari eta mendekotasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko 39/2006 Legean" ezarritako sailkapenaren arabera, eta familia inguruko zaintzaile ez-profesionalekin erroldatuta badaude.

Salbuespen hori mendekotasuna duten pertsonen familia inguruko zaintzaile ez-profesionalen titulartasuneko etxebizitzari ere aplikatuko zaie (I., II. eta III. graduak), baldin eta mendekotasuna duen senitartekoaren etxebizitzara lekualdatu eta bertan erroldatu badira.

Bi kasuetan, zaintzailearen edo mendekotasuna duenaren ohiko etxebizitza den horri aplikatuko zaio



Andoaino Udala

Akta:Osoko Udalbatza

APARTEKO BILKURA: 2025/10/23

Acta: Pleno Municipal

SESIÓN EXTRAORDINARIA: 23/10/2025

soilik.

Mendekotasun-ziurtagiria aurkeztu beharko da, eskumena duen organoak emana, eta bizikidetzaz ziurtagiria ere bai, udalerritik kanpo erroldatuta dauden kasu haietan.

h) Jarduera ekonomiko, profesional edo komertzial etengabeko baten zerga ondorioetarako helbide diren etxebizitzak, Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren matrikulan alta emandakoak, udalaren baimena edo aurretiko komunikazioa eskura badute.

Hemen barruan daude baserriak, beti ere baserrien titularrak bertan dagoen jarduerarengatik nekazal errenta jasotzen badute.

Salbuetsita egongo dira, era berean, erakunde politiko, sindikal edo enpresariaren egoitza izateko erabiltzen direnak edo irabazi asmorik gabeko erakundeak bertan kokatuta dituztenak.

Salbuespen hau aplikatzeko baldintza izango da higiezinaren titular katastrala izatea edo, bere kasuan, jardueraren titularraren aldeko alokairu-kontratu bat egotea, urtebete edo gehiagoko epearekin. Kontratuak idatzita jasota ez badago, frogatzeko egokitzat jotzen diren bideetatik justifikatu beharko da hala dela.

i) Zergaren sortzapen-datan alokatutako etxebizitzak.

Hasierako alokairu-kontratuak aurkeztu beharko da, non zehaztuko den higiezina etxebizitza-erabilerarako lagatzen dela.

Kontratuak indarrean dagoela frogatzeko sortzapen urteko urtarrileko edo ondorengo alokairuaren diru-sarreraren ziurtagiria aurkeztu beharko da, non ordaintzailea identifikatuko den.

Alokairu kontratuak 2016ko martxoaren 31 baino beranduago (data hori barne) izenpetu diren kasu haietan, dokumentu hauek aurkeztu beharko dira:

Eusko Jaurlaritzako dagokion zerbitzuan aurkeztutako fidantza-gordailuaren ordainagiriaren fotokopia.

Alokairu-kontratuei buruz kontu emango zaio Foru Ogasunari.

j) Zerga sortu aurreko urtean zehar gutxienez 183 egunez alokatuta egon diren etxebizitzak.

Alokairu-kontratuak aurkeztu beharko da, non adierazita egongo den higiezin hori etxebizitza-erabilerarako lagatzen dela.

Kontratuak indarrean dagoela frogatzeko alokairuko diru-sarreraren ziurtagiriak aurkeztu beharko dira, lehen adierazitako gutxienezko epealdiari dagozkionak (183 egun), non ordaintzen duena identifikatuko den.

Alokairu kontratuak 2016ko martxoaren 31 baino beranduago (data hori barne) sinatu diren kasu haietan zera aurkeztu beharko da:

Eusko Jaurlaritzako dagokion zerbitzuan aurkeztutako fidantza-gordailuaren ordainagiriaren fotokopia

k) Higiezinaren merkatuan saltzeko edo alokatzeko eskainita dauden etxebizitzak, beti ere:

1) Salmentako prezioak ez badu gaintzen katastro-balioa 1,9 koefizienteagatik biderkatuta ateratzen den zenbatekoa.

2) Urteko alokairu-prezioak ez badu gaintzen etxebizitzaren katastro-balioa 1,9 koefizienteagatik biderkatu ondoren ateratzen den balioaren %4a

.Aurkeztu beharreko dokumentazioa: Higiezinaren bitartekaritza-zerbitzuarekin sinatutako salmenta- edo errentamendu-kontratuak, salmenta-/alokairu-prezioa adierazita, edo higiezin-merkatua eskuragarri jarri dela egiaztatzen duten frogabideekin batera egindako adierazpena (argazkiak, salmenta-kartelak, webguneetako publizitatea, etab.).

l) Ostatu, pentsio edo hotel bezala erabiltzeko bideratutako etxebizitzak, beti ere dagokion jardueraz lizentzia badute.

Gorabehera hori Udalak ofizioz egiaztatuko du.

m) Hutsik geratu diren etxebizitzak, horren arrazoia denean higiezinaren jabea edo berorren ezkontidea Gipuzkoatik kanpoko beste udalerrira batera joan dela, laneko arrazoiengatik.

Kasu horretan, errekaruari lotu gabe hiru urteko epean egongo da, lekualdatu den egunetik aurrera zenbatuta.

Gorabehera hori egiaztatuko da jabeak egungo helbidean erroldatuta dagoela dioen ziurtagiria eta



Andoaino Udala

Akta:Osoko Udalbatza

APARTEKO BILKURA: 2025/10/23

Acta: Pleno Municipal

SESIÓN EXTRAORDINARIA: 23/10/2025

etxebizitzaren jabe horrek zerbitzuak ematen ditueneko enpresak egindako ziurtagiria aurkeztuta.

Izatezko bikoteen kasuan, dagokion Erregistroan inskribatuta egon beharko dute.

n) Zerga sortu den unean eraberritzen ari diren higiezinak.

Gorabehera hori egiaztatuko da obretarako udal baimena, deklarazio arduratsua edo aurretiko komunikazioa aurkeztuta, zeinaren egikaritze epeak zerga sortu den data barne hartuko duen.

n) Zerga sortu den unean eraberritzen ari diren higiezinak.

Gorabehera hori egiaztatuko da obretarako udal baimena, deklarazio arduratsua edo aurretiko komunikazioa aurkeztuta, zeinaren egikaritze epeak zerga sortu den data barne hartuko duen.

n) Zerga sortu den unean eraberritzen ari diren higiezinak.

Gorabehera hori egiaztatuko da obretarako udal baimena, deklarazio arduratsua edo aurretiko komunikazioa aurkeztuta, zeinaren egikaritze epeak zerga sortu den data barne hartuko duen.

o) Ohiko bizitokiaren izaera ez duten etxebizitzak baina urtean gutxienez 1.000 KW elektrizitate edo 2.000KWH gas natural kontsumo jarraitua izan egiaztatzen dutenak.

Salbuespen hori subjektu pasibo onuradunaren etxebizitza bakar bati aplikatuko zaio.

Inguruabar hori egiaztatzeko, fakturak aurkeztuko dira, zergaren sortzapenaren dataren aurreko urteko elektrizitate- edo gas-kontsumoak azaltzen dituztenak

p) Bi erregistro-finka independente osatzen dituzten etxebizitzak, katastroan bi ordainagiri desberdin izanik fisikoki lotuta dauden bi finka izatean etxebizitza bakar gisa erabiltzen direla adierazten dutenak.

Gorabehera horri buruzko balorazio txostena udaleko zerbitzu tekniko adituek egingo dute.

q) Zerga sortu aurreko hiru hilabeteetan eta ondorengo bi hilabeteetan eskualdatutako etxebizitzak, baldin eta erositako etxebizitza horretan Udal Erroldan inskribatuta badago, eskualdaketa egin eta hiru hilabeteke epean.

r) Zaintza partekatuko erregimenaren kasuan, habia-etxean edo seme-alaben helbide finkoan ,bai habia-etxebizitza, bai gurasoek okupatzen dituzten etxebizitzak.

s) «Bizigune» Etxebizitza Hutsen Programa»ren esparruan, «ASAP merkatu libreko etxebizitzaren alokairurako bitartekaritza programa»ren esparruan foru zein udaletako antzeko beste plan eta programa batzuen barruan atxikiak egoteagatik hobaria duten etxebizitzak.

t) Ekainaren 8ko, 149/2021 Dekretuan, jenderik gabeko etxebizitzetara ezartzen zaien Kanona ordaintzen duten etxebizitzak.

2.- Salbuespenak subjektu pasibo interesdunek eskatuta emango dira, 13. artikuluan adierazitako prozedura eta epeak betez.

13. Artikulua. Errekargua aplikatzeko kudeaketa prozedura berezia

1.- Udalak, ofizioz, zerga honen subjektu pasibo direnen hasierako zerrenda egingo du, ohiko egoiliar bezala inor inskribatuta ageri ez zaien bizileku erabilerako ondasun higiezinaren titular direnena.

2.- Ondasun bat errekararen gai dela jotzen bada, hasiera batean jakinaraziko zaio subjektu pasiboari, egoki deritzen alegazioak egin ditzan. Udalak, alegazioak ikusita, errekarua aplikatzeari edo ez aplikatzeari buruzko behin betiko ebazpena emango du. Erabaki hori subjektu pasiboari jakinaraziko zaio, legezko bide egokiak erabiliz.

Higiezina zergaren erroldan sartu ondorenerrekarguari lotutako bizitegi-erabilerako etxebizitza gisa, eta ezohiko erabilerak irauten duen bitartean, zerga eta haren errekarua batera ordainaraziko dira, banakako jakinarazpenik egin beharrik gabe.

3.- Jabeak jakinarazi bazaie higiezina zergaren erroldan sartu dela errekaruari lotutako bizitegi-erabilerako etxebizitza gisa, hurrengo urteetan ez da beste jakinarazpenik egingo, eta beraz, jabeen erantzukizuna izango da udal administrazioari epearen barruan jakinaraztea errekarua bidezkoa ez dela uste den edozein gorabehera

Errekarguaren salbuespena edo ohiko bizitokia dela frogatzeko egiaztatzea aurkezteko epea urtarrilaren 1etik otsailaren 28 arte luzatuko da eta indarrean dagoen ekitaldian izango ditu ondorioak.

VII. AZKEN XEDAPENA

Ordenantza Fiskala eta ordenantza osatzen duten II. eta III eranskinetan zehaztutako karga-tasak, Udalbatzak aldatu zituen 2025eko urriaren 23an egindako bilkuran eta 2026ko urtarrilaren 1ean indarrean



Andoingo Udala

Akta:Osoko Udalbatza

APARTEKO BILKURA: 2025/10/23

Acta: Pleno Municipal

SESIÓN EXTRAORDINARIA: 23/10/2025

sartuko da. Aplikatzen jarraituko da harik eta erregelamendu bidez aldatzea edo indargabetzea erabaki arte.

Akateak edozein aldaketa egin ahal izango du ordenantza fiskalean, baldin eta aldaketa horiek nahitaez aplikatu beharreko lege-aldaketen ondorio badira eta, ondorioz, baldintzak aldatzen badira edo zenbatekoak edo ehunekoak automatikoki egokitzen badira. Hori berariaz jasoko da, eta aldaketa horien berri berehala emango zaio osoko bilkurari, berresteko.

II. Eranskina

% 2,8ko igoera, 4 dezimala

2. Hiri Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga	
	%
Etxebizitza lurzoruan kokatutako hiri ondasunak	0,1793
Lurzoru industrial edo tertziarioan kokatutako hiriondasunak	0,5485

4.- Trakzio mekanikodun ibilgailuen gaineko zerga erregulatzen duen Ordenantza Fiskala.

6. artikularen 4. Puntua, azken xedapena eta IV. eranskina aldatu dira: % 2,8ko igoera, 5 zentimotan biribilduz.

Hobari batzuk ezarri dira familia ugariaren titular diren subjektu pasiboentzat, diru-sarreraren eta seme-alaba

Seme-alaba kopurua	0,00€-26.000,00€	26.000,01€-55.000,00€	55.000,01€-90.000,00€	>90.000,00€
3	%90	%60	%40	0
4	%90	%70	%50	0
5 edo gehiago	%90	%90	%60	0

Hobaria eskuratzeko baldintzak:

- Zergaren subjektu pasiboa familia ugariaren titularra izan beharko da.
- Familia-unitate bakoitzeko 5 plaza edo gehiago dituen turismo bati bakarrik aplikatuko zaio hobaria.
- Familiako kide guztiek Andoingo etxebizitza berean errolatuta egon behar dute.

Subjektu pasiboa errolatzea nahikoa izango da dibortzio-kasuetan, baldin eta seme-alabekiko zaintza eta jagoletza partekatua adosten bada, seme-alaben bizilekua guraso bakoitzaren bizilekuan txandakatuz arautua, betiere gainerako baldintzak betetzen badira.

Kasu horretan, hobaria aplikatuko da:

* Familia ugariaren titularrak Andoainen helbideratuta dagoen ibilgailu bakar baten subjektu pasiboak badira eta horrek gainerako baldintzak betetzen baditu, horri.

* Andoainen helbideratuta dauden bi ibilgailuen subjektu pasiboak badiera eta biek betetzen badituzte gainerako eskakizunak, biei erdibana.

Hobari horiek ematearen ondorioak eskaeraren dataren hurrengo ekitalditik aurrekoak izango dira, eta inoiz ez dute izango atzera eraginik. Beraz, eskariak hobaria aplikatu aurreko urteko abenduaren 30 baino lehenago egin beharko dira.

Artikulu honetako hobariak hobaria eskatzen den zergaldiko urtarrilaren 1ean baldintzak betetzen

dituzten subjektu pasiboeri aplikatuko zaizkie.

Hala ere, matrikulazio berriko ibilgailuek 2 hilabeteko epea izango dute, Trafikoko Buruzagitzan alta ematen zaienetik zenbatzen hasita, hobaria eskatzeko, indarrean dagoen urtean ondorioak izan ditzan.

39/2015 Legearen 28. artikuluan eta 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 6.1. artikuluan ezarritakoari jarraiki, Andoaino Udalak, interesdunak horren aurka egiten ez badu, Trafiko Zuzendaritza Nagusian eta Eusko Jaurlaritzaren erregistroan eta NISAE elkarreragingarritasun-nodoaren bidez, hobaria eskuratzeko baldintzak betetzen dituzuen egiaztatze behar den informazioa kontsultatuko du zuzenean eta, bereziki: gida baimena, Ibilgailuaren fitxa teknikoa eta familia ugari titulua.

2016ko apirilaren 27ko Datuak Babesteko 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 21 artikuluekin bat etorriz, eskatzaileak bere datuak kotsultatzearen aurka egin ahal izango du, aurka egiteko arrazoiak adieraziz; eta kasu horretan, udalak dagokion agiria aurkeztera behartu ahal izango du.

Udalak, edozein unetan, eskatzaileak hobariaren oinarri den baldintza galdu duela egiaztatzen balu, pertsona horrek hobari hori automatikoki galduko luke.

Eskatutako onura fiskala lortzeko eta gozatzeko ezinbesteko baldintza izango da Udal Ogasunarekiko zordun ez izatea.

Hobariak ezingo dira metatu, eta zergadunarentzat onuragarriena dena aplikatuko da beti.

AZKEN XEDAPENA

Ordenantza Fiskala eta Eranskinean jasotako karga-tasak, hura osatzen dutenak, aldatu egin zituen udalbatzak, 2025ko urriaren 23an egindako bilkuran, eta 2026ko urtarrilaren 1ean jarriko da indarrean, eta aplikatzen jarraituko da erregelamendu bidez aldatzea edo indargabetzea erabaki arte.

Alkateak edozein aldaketa egin ahal izango du ordenantza fiskalean, baldin eta aldaketa horiek nahitaez aplikatu beharreko lege-aldaketen ondorio badira eta, ondorioz, baldintzak aldatzen badira edo zenbatekoak edo ehunekoak automatikoki egokitzen badira. Hori berariaz jasoko da, eta aldaketa horien berri berehala emango zaio osoko bilkurari, berresteko

IV Eranskina

Ibilgailu potentzia eta mota	Kuota (€)
A. Turismoak	
9 zaldi fiskal arte	48,50
9tik 11,99 zaldi fiskaletara bitartekoak	98,30
12tik 13,99 zaldi fiskaletara bitartekoak	163,45
14tik 15,99 zaldi fiskaletara bitartekoak	228,65
16tik 19,99 zaldi fiskaletara bitartekoak	294,85
20 zaldi fiskal baino gehiagokoak	359,90
B.-Autobusak	
21 plaza baino gutxiagokoak	222,65
21etik 50 plazatara bitartekoak	316,15
50 plaza baino gehiagokoak	395,40
C. Kamioak	
1.000 kg baino gutxiagoko karga erabilgarri /	112,45
1.000 kg-tik 2.999 kgtara bitarteko karga erabilgarri	222,60

2.999 kg-tik 9.999 kgtara bitarteko karga erabilgarri	316,15
9.999 kg baino gehiagoko karga erabilgarri	395,40
D. Traktoreak	
16 zaldi fiskal baino gutxiagokoak	47,40
16tik 25 zaldi fiskaletara bitartekoak	74,65
25 zaldi fiskal baino gehiagokoak	222,65
E. Trakzio mekanikodun ibilgailuek arrastaneramandako atoi eta erdi atoiak	
750 kg-tik 1.000 kg bitarteko karga erabilgarria/	47,40
1.000 kg-tik 2.999 kgtara bitarteko karga erabilgarri	74,65
2. 999 kg baino gehiagoko karga erabilgarri /	222,65
F. Gainerako ibilgailuak	
Ziklomotoreak	11,80
125 zk-tarainoko edo 10 kw-tarainoko motozikletak	11,80
125-250 zk. edo 10-20 kw bitarteko motozikletak	20,15
250-500 zk edo 20-40 kw bitarteko bitarteko motozikletak	41,45
500etik 1.000 zk edo 40-80 kw bitarteko motozikletak	82,90
1.000 zk edo 80 kw baino gehiagoko motozikletak	164,65

5. Eraikuntza, Instalazio eta Obrei buruzko Zergaren Ordenantza Fiskal arautzailea.

Hobari hauek gehitu dira:

-100eko 90era bitarteko hobaria, eraikuntza, instalazio edo obrek persona ezinduen irisgarritasun eta habitagarritasun baldintzak errazten dituztenean.

-Zerga-kuotan hobaria izango dute A edo B etiketa energetikoa lortzeko birgaitze energetikoa helburu duten obrek, honako ehuneko hauen arabera:

- A mota: % 90eko hobaria.
- B mota: % 80ko hobaria.

VIII. AZKEN XEDAPENA

Ordenantza hau bere Eranskinarekin batera aldatu egin zituen udalbatzak, 2025eko urriaren 23an egindako bilkuran, eta 2026ko urtarrilaren 1ean jarriko da indarrean, eta aplikatzen jarraituko da erregelamendu bidez aldatzea edo indargabetzea erabaki arte.

Alkateak edozein aldaketa egin ahal izango du ordenantza fiskalean, baldin eta aldaketa horiek nahitaez aplikatu beharreko lege-aldaketen ondorio badira eta, ondorioz, baldintzak aldatzen badira edo zenbatekoak edo ehunekoak automatikoki egokitzen badira. Hori berariaz jasoko da, eta aldaketa horien berri berehala emango zaio osoko bilkurari, berresteko.

6.- Hirilurren Balio Gehikuntzaren gaineko zergaren Ordenantza Fiskal arautzailea.

4. artikuluko 1. puntuko b) eta c) letrak aldatu dira.



Andoaingo Udala

Akta:Osoko Udalbatza

APARTEKO BILKURA: 2025/10/23

Acta: Pleno Municipal

SESIÓN EXTRAORDINARIA: 23/10/2025

5. artikuluko 3. Puntuan aldatu da.

XI.Azken xedapena aldatu da.

%2,8 igoera VI. eranskineko karga-tasan, bi dezimaletan biribilduz.

4.artikulua

(...)

b) Hiri-lurren balio gehikuntza, baldin eta Sozietateen gaineko Zergari buruzko urtarrilaren 17ko 2/2014 Foru Arauak VI. tituluaren VII. kapituluan araututako erregimen berezia aplikagarria zaien eragiketetatik eratorritako eskualdaketen ondorioz gertatu bada. Aipatutako foru arauak 111. artikuluan jasotakoaren arabera ematen diren lurren gaineko eragiketak hortik kanpo geratzen dira, lurrak jarduera adar batean sartuta ez daudenean.

Aipaturiko lurrak geroago eskualdatzen badira, VI. tituluaren VII. kapituluan jasotako eragiketetatik eratorritako eskualdaketak ez du etengo balio gehikuntza sortu duen urte kopurua.

c) Ezkontideek ezkontza sozietateari ondasun eta eskubideen ekarpenak egitea, ekarpen horien ordainetan ezkontideei ondasun eta eskubideak modu egiaztatuan esleitzea, eta ezkontideei beren hartzeko komunetan ordainetan eskualdaketak egitea.

Xedapen bera aplikatuko da, aurreko paragrafoan aipatutako kasu berdinetan, izatezko bikoteko kideek egiten dituzten ekarpen, esleipen eta eskualdaketei dagokienez.

Ez da zergapetuta egongo, era berean, ondasun higiezinak ezkontideen artean, izatezko bikoteko kideen artean edo seme-alaben alde eskualdatzen direnean, baldin eta ezkontza baliogabetu edo senar-emazteak banandu edo dibortziaztean edo izatezko bikotea amaitzean emandako sententziak betetzearen ondorio badira, hurrenez hurren ezkontzako erregimen ekonomikoa edo ondarezko erregimen ekonomikoa zainahi dela ere.

5.artikulua

(...)

3.Zerga kitatzean % 50eko hobaria eskura izango dute ohiko etxebizitzako lurren eskualdaketa eta jabaria mugatzen duten gozameneko ondasun eskubideen eskualdaketa edo eraketatan, beti ere ordainik gabeko eskualdaketa edo eraketak badira eta ondorengo ahaideen, adoptatuen, ezkontideen edo izatezko bikotekideen, aurreko ahaideen edo adoptatzaileen alde egiten badira heriotza dela eta, alegia, beheranzko eta goranzko zuzeneko lerroan daudenean eta ezkontidea edo izatezko bikotekidearena.

Ezinbesteko baldintza izango da, heriotzaren egunean, aipatutako lagunak hobaria jaso duen etxebizitzan gutxienez urte betez bizitzen egotea eta beste etxebizitza baten jabe ez izatea, hau aplikatzeko orduan halakotzat hartu gabe:

- Jabetzaren % 50tik beherako titulartasuna duen bigarren etxebizitza baten jabeak direnean.

- Beste etxebizitza baten jabetza hutsa bere esku duenean eta erabilera eskubidea oraindik indarrean dagoela (beti ere erabilera eskubidea duena etxebizitza horretan erroldatuta egonik).

- Beste etxebizitza baten gozamenak direnean.

Oinordeko bat baino gehiago egongo balitz, hobaria aipatutako baldintzak frogatzen duenari bakarrik aplikatuko litzateke.

39/2015 Legearen 28. artikuluan eta 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 6.1. artikuluan ezarritakoari jarraiki, Andoaingo Udalak, interesdunak horren aurka egiten ez badu, NISAE elkarreragingarritasun-nodoaren bidez, hobaria eskuratzeko baldintzak betetzen dituzten egiaztatze behar den informazioa kontsultatuko du zuzenean eta, bereziki ondasun higiezinak Gipuzkoan eta probintziatik kanpo.

Hobaritik kanpo gelditzen dira zeharkako lerrotik datozen oinordekoak eta sendikoen arteko doako emaitza eta lagapenak. Hobarik jarraian adierazitako mugekin ezarriko dira:

- Zergadunaren ondasun higiezin guztien balio katastrala 210.000,00 eurotik gorakoa bada, ez da hobarirako eskubiderik izango.

- Subjektu pasiboaren ohiko etxebizitzaren zerga kitapenari dagokion kuotaren gainean ezarriko da, barne hartuz eraikin edo etxebizitza sail berean kokaturiko garaje edo trastetegia edo, hala balegokio,



Andoaino Udala

Akta:Osoko Udalbatza

APARTEKO BILKURA: 2025/10/23

Acta: Pleno Municipal

SESIÓN EXTRAORDINARIA: 23/10/2025

ohiko etxebizitzatik hurbilen dagoen garajearenari.

- Subjektu pasibo anitz balitz, alegia, banagabea edo indibisoan harturikoa, nahikoa izango da etxebizitza horietako baten ohikoa izatea.

- Eskualdaketa merkataritza jarduerarik burutzen ari deneko ondasun higiezin baten balitz, hobaria zergaren kitapen kuotaren gainean ezarriko da baldin eta merkataritza jarduera subjektu pasiboak berak burutzen baldin bada edo bera partaide deneko baltzu edo erakunde batek, beti ere, azken horretan subjektu pasiboa partaide edo elkarkide baldin bada.

- Eskualdatzerakoan hobari baten onura jaso duten ondasun higiezinak ezin izango dira eskualdatu bost urteko epe batez, eskualdatzailearen heriotza gertatu deneko egunetik aurrera kontaturik. Bost urteko epealdi horretan etxebizitza edo merkataritza lokalak aurreko bi puntuetan azaldutako ezaugarriei eutsi beharko die.

